

Gipuzkoa
Zarautz

**AZOKA
MERCADO**



Udaletxeari atxikita eraiki zuten 1901 ean, herriaren erdian. Oinplano angeluzuzeneko nabea da, eta barruan bi solairu ditu. Bi isurialdeko teilatua dauka, erdian branka-argi handi batekin. Hormak harlangaitzez eginda daude, eta zorua zementu lauz. Azokak lau angeluko tartea du sarrera gisa. Sartzeko hiru ate daude, erdikoa (puntu erdikoa) eta alboko biak (burudunak). Barrualdean eremu bakarra dago, eta bertan daude postuak antolatuta. Lehenengo solairuan ertz alakatudun zutabeak daude, goiko solairuko korridoreari eusten diotenak. Argia hainbat baotatik (argizuloak) eta nabe osoa zeharkatzen duen erdiko branka-argiaren bidez lortzen da. Branka-argiaren azpian, ageriko zertxak daude. Fatxada nagusia zuriz margotuta dago, eta triangelu itxurako frontoi bat du amaieran. Sarreraren gainean molduradun inposta-lerroa dauka, erdiko arkuari jarraitzen diona. Pinoiaren argizuloa ere apaindurik dago, osorik zeharkatzen duen moldura baten bidez. Eraikin honetan, lerro eklektikoak eta funtzionalak dira nagusi. Zarauzko alde zaharrean dago, eta babestutako eraikina da. Gaur egun, berriro ostean ere, merkatu izaten jarraitzen du.

Se construyó en 1901 en el casco histórico de la villa, adosado al ayuntamiento. Se trata de una nave de planta rectangular que, en el interior, cuenta con dos pisos de altura. Su cubierta viene proporcionada por un tejado a dos aguas que posee una gran linterna en el centro. Los muros son de mampostería y el suelo de cemento liso. El mercado cuenta con un espacio cuadrangular de acceso. El ingreso se produce a través de tres puertas, la central de medio punto y las laterales adinteladas. El interior se distribuye gracias a un único espacio, alrededor del cual se establecen los distintos puestos. El primer piso presenta pilares de esquinas achaflanadas que sostienen el pasillo del piso superior. La iluminación del mercado se logra gracias a varios vanos –óculos– y a una linterna central que recorre toda la nave. Bajo la linterna, las cerchas aparecen vistas. La fachada principal, pintada de blanco, termina en un frontón triangular y presenta, por encima de los accesos, una línea moldurada de imposta que describe un arco central. El óculo del hastial se decora, también, con una moldura que lo recorre en su totalidad. Edificio en el que son claras las líneas eclécticas y funcionales. Protegido dentro del casco histórico de Zarautz, tras su rehabilitación sigue albergando el mercado municipal.